

Lorentxo

EUSKARA IKASTEKO ETA JOLAS EGITEKO MATERIALA



ERABILERA GIDA

CD-A NOLA ERABILI

Bi CD daude:

Lehenengoan, larrosan, sarrera eta gai orokorrak aurkituko dituzu. Baita gutunak sortzen tresna ere. Bigarrenean, horian, sasoian sasoiko gaiak daude. Horretaz gain, marrazkien txokoa tresna aurkituko duzu.

Gai bakoitza kolore bati lotua dago, beraz, CDan nabigatzen zabiltzan bitartean, koloreak aldatzen joango dira gai batetik bestera pasatzean.

Bi CDak pizteaz bat abiaraziko zaizkizu eta menu nagusia ikusiko duzu. Menu horretan gaietan sartzeko bi aukera dituzu:

- 1.- Beheko aldean gaien zerrenda daukazu; gai bakoitzaren gainean klik eginez gero, aukeratutako gaiaren menura sartuko zara.
- 2.- Menu nagusiaren orrian, bueltaka, gai bakoitzarekin zerikusia duen irudi bana dago. Irudi bat aukeratu beharko duzu, pantailaren aurreko aldean kokatu eta, gainean klikatzen duzunean, aukeratutako gaiaren menura sartuko zara.

Behin gaiari dagokion menuan sartuta, bi aukera dituzu:

- 1.- Gai osoa ireki: PDF formatuan, liburu estiloan, gai osoa ikusteko aukera izango duzu.
- 2.- Menuaren laguntzaz gaiko edukiak banan-banan ikusi: azalpenak pantailan ikusiko dituzu eta [PDFa ireki]-n klik eginez gero, dagokion edukia zabalduko zaizu. Eskumako aldean, gai guztien menua ikusiko duzu; bertatik nabigatzeko aukera dago.

Bai batak eta bai besteak, inprimatzeko aukera ematen dute.

TRESNAK

1.- Bilatu

Bi CDez bilaketa azkarra egiteko aukera ematen dute. Bilaketarako aukeratutako hitza deklinatu gabe idatzi behar da, erro bera duten hitzak bilatuko dituelako.

Adibidez:

“Jolas” hitza idatzi bilaketa eremuan. Bilatu klikatu eta CDan dauden jolas guztiak agertuko zaizkizu. Behar duzun jolasaren gainean klik egin eta pantailan agertuko zaizu.

“Mahai” hitza idatzi bilaketa eremuan. Bilatu klikatu eta CDan mahai hitza daukaten dokumentu guztiak agertuko zaizkizu. Behar duzun dokumentuaren gainean klik egin eta pantailan agertuko zaizu.

2.- Marrazkien txokoa

Tresna honen bitartez, gai guztietan dauden marrazkiak erabili ahalko dituzu. Nahi dituzun marrazkiak aukeratu, biratu, handitu edo txikitu ahalko dituzu. Nahi dituzun moldaketak egin eta gero inprimatzeko aukera dago.

Marrazkien txokoa izeneko tresna honek beste aukera bat ere eskaintzen du. Izan ere, bertan, tablero hutsak dituzu; bingoa erabiltzeko tableroak, hain zuzen ere. Kontuan izanda gai guztietako marrazkiak topatuko dituzula marrazkien txokoan, norberak egin ditzake nahi dituen konposizioak: zenbakiak gehitu eta bingo erraldoia egin, bi gaitako marrazkiak nahastu eta batera landu, ikasturte osoan landutako gai guztiak hartu eta amaieran hiztegi guztia nahasian landu eta abar. Mila konbinazio egin daitezke.

3.- Gutunak sortzen

Tresna honek gutunak sortzeko aukera ematen du: umeak motibatzeko, zoriontzeko, errieta egiteko... Demagun, ume jakin bati idatzi nahi diozula edo gaia girotzeko beste modu bat bururatu zaizula. Tresna horren bitartez, zuk nahi duzun moduko eskutitza idatzi ahal izango duzu. Kontuan hartu, beti ere, eskutitz horrek betiko formatua izango duela: Lorentxoren eskutik helduko da, betiko hizki-mota izango du...

AURKIBIDEA

1. Sarrera	→ 6
2. Helburu orokorrak	→ 6
3. Hizkuntza helburuak	→ 7
4. Materialaren egitura	→ 7
5. Gaien egitura	→ 8
5.1. Sarrera	
5.2. Gai orokorrak	
5.2.1. Loretxoren gutuna	
5.2.2. Horma-irudia	
5.2.3. Jolasak	
5.2.4. Fitxak	
5.2.5. Eskulanak	
5.2.6. Azken xedea	
5.3. Sasoian sasoiko gaiak	
6. Gaien banan-banakako azalpena	→ 11
6.0. Sarrera	
6.1. Zenbakiak eta koloreak	
6.2. Familia eta ingurunea	
6.3. Ni eta nire arropa	
6.4. Etxea eta altzariak	
6.5. Elikagaiak	
6.6. Animaliak	
6.7. Urtaroak	
6.8. Gabonak	
6.1. Inauteriak	
7. Hezitzailea	→ 17
7.1. Hezitzailearen funtzioa	
7.2. Hezitzailearentzako aholkuak	
8. Material osagarria	→ 20
8.1. Jolasak eta abestiak	
8.2. Ipuinak	
8.3. Filmak	
8.4. Internet baliabideak	
8.4.1. Irudiak	
8.4.2. Eskulanak	
8.4.3. Marrazkiak	

1. SARRERA

Eskuartean daukazu materiala euskaraz ez dakiten umei zuzendutako materiala da, bost eta zortzi urte bitartekoei, hain zuzen ere. Euskal Herriko eguneroko bizitzan murgiltzen hasteko oinarrizko laguntza da, egunerokotasunean laguntzeko tresna bat gehiago, alegia.

Material honetan hurbileko hiztegiak eta oinarrizko egiturek daukate garrantzia. Bost eta zortzi urteko umeak direla kontuan hartuta, adinak ere asko lagunduko die hizkuntzaren ikaskuntza prozesuan, eta inguruak laguntzen badu, integrazioarako bidea are errazago izango da.

Bestalde, azpimarratzekoa da materiala hezitzailearen gidaritzapean erabiltzeko egina dela eta ez umeek euren kasa lantzeko. Helduen laguntza eta gidaritzak, beraz, ezinbestekoak dira.

Erabilera gida honetan materialaren barruan zer aurki daitekeen azaltzen da: CDa, jolasak, eskulanak, fitxak eta abar. Horretaz gain, materialean jasotako ekintza bakoitzak bere prozedura dauka, nola eta zein hurrenkeratan egin behar den azaltzeko.

2. HELBURU OROKORRAK

Helburuak ugariak izanik ere, hauek dira garrantzitsuenak:

- Euskara ahalik eta modurik ludikoenean ikastea.
- Euskararen aldeko jarrera bultzatzea.
- Hizkuntzaren alderdi soziokulturala lantzea:
 - Euskal Herria ezagutzea.
 - Euskal kulturara hurbiltzea.
- Talde lana bultzatzea.
- Oinarrizko arauak errespetatzen ikastea.

Material honen helburua Euskal Herriko ohiturak ezagutaraztea ere bada. Horrek ez du esan nahi hemengoak ez diren ohiturek lekurik izango ez dutenik, izan ere, berebiziko garrantzia dauka umei tartea uzteak euren herrialdeetako ohiturak azal ditzaten. Umeek beti izango dute aukera euren ohiturak azaltzeko eta besteenak entzuteko.

3. HIZKUNTZA IRIZPIDEAK

- Oinarrizko hiztegiaren jabe izatea. Hurbileko gaiak landu dira: aurkezpeneko hiztegia, ikasgelakoa, zenbakiak eta koloreak, familiarekin eta inguruarekin lotutakoa, gorputz-atalak eta arropa, altzariak, elikagaiak, animaliak eta abar.
- Hizkuntza egitura arruntenak ikastea: nor, zein, nolakoa, izan, egon eta eduki aditzak, salneurriekin lotutako kontzeptuak...
- Inguruko hizkera entzuteko eta ulertzeko aukera eskaintzea.
- Euskaraz berba egiteko aukera eskaintzea.

4. MATERIALEN EGITURA

Materialak bi zati ditu: alde batetik, sarrera; eta bestetik, gaiak.

a. Sarrera:

Umeek euskara ikasten lagunduko dien pertsonaia ezagutuko dute atal honetan: Lorentxo. Lorentxok bere aurkezpena egingo du eta hori aprobetxatuko da umeek euren aurkezpena egiten ikasteko. Horretaz gain, gelako hiztegia, letrak, euskara erabiltzen hasteko oinarri-oinarrizko hiztegi eta egiturak ere landuko dituzte.

b. Gaiak:

Gaiak eurak ere bi multzotan banaturik daude.

1. Alde batetik, sei gai orokor daude:

1. Zenbakiak eta koloreak
2. Familia eta ingurunea
3. Ni eta nire arropa
4. Etxea eta altzariak
5. Elikagaiak
6. Animaliak

Eguneroko hiztegia lantzeko umeen hurbileko gaiak.

2. Eta, bestetik, sasoiari sasoiko hiru gai; une jakinetan sartzekoak dira, garaiari dagozkion kontzeptuak eta ohiturak lantzeko:

- A. Urtaroak
- B. Gabonak
- C. Inauteriak

5. GAIEN EGITURA

EZ DUT ULERTU,
ESAN BERRIRO



5.1. SARRERA

SARRERA deitutako atal hau hasieran lantzeko da. Umeek gai guztietan lagun izango duten pertsonaia ezagutuko dute: Lorentxo, eta, baita, honen lagunak diren Beñat, Irati eta Argi ere.

Bestalde, oinarri-oinarrizko hiztegia ikasiko dute: gelako materiala, hain zuzen ere. Letrekin ere jolasean hasiko dira eta, horretaz gain, hainbat kartel izango dituzte euskaraz lehenengo esaldiak esaten hasteko.

5.2. GAI OROKORRAK

Gai orokor guztiek egitura bera jarraitzen dute:

1. Lorentxoren gutuna
2. Horma-irudia
3. Jolasak
4. Fitxak
5. Eskulanak
6. Azken xedea

5.2.1. Lorentxoren gutuna:

Gaiarekiko interesa pizteko erabiliko da, motibatzeko ere bai zenbaitetan.

Lorentxo izango da gai guztiei hasiera eta amaiera emango diena eta gai guztiak lotuko dituena. Batzuetan gaia girotuko du, beste batzuetan gaian zer landuko duten laburbilduko du, eta hori guztia gutunen bidez egingo du. Lorentxok sarrera egingo du, baina gaiaren lanketan Beñatek eta Iratik lagunduko diote. Bost-zortzi urte bitarteko umeengandik gertu dauden bi ume dira, gertu adinaren aldetik. Euren bitartez, hemengo bizimodua ezagutzeko aukera izango dute.



Oso garrantzitsua da hezitzaileak, etengabe, begien aurrean izatea zein den Loretxoren funtzioa: sarri-sarri aipatu, egunero egin Loretxoren erreferentziaren bat edo beste...

Lorentxok lagunduko du gaiaren haria ez galtzen. Loretxo bera izango da, hain zuzen ere, azken xedean zer egin behar duten azalduko duena gutunaren bidez.

Bestalde, hezitzailearen esku geratzen da Loretxoren gutunak moldatzea edo berriak egitea. Askotan komeni izaten da gutun pertsonalatuak bidaltzea umeei: ume bati izan duen jarrera txalotzeko, beste bati egin duen lanarengatik zoriontzeko...



5.2.2. Horma-irudia:




Umeek gaiaz zer dakiten jakiteko edo aurrezagutzak aktibatzeko erabiliko da. Gai batzuetan horma-irudi bakarra dago, eta beste batzuetan, bi.

Lehenengo hurbilpena izango da. Gaiaren zehar landuko den hiztegiaren zati handi bat ikusiko dute horma-irudian.

5.2.3. Jolasak:

Jolasek garrantzi berezia dute, era ludikoan hiztegia erabiltzeko bidea eskaintzen baitute.

Gai guztiak bingo eta bikote-jolasetan oinarritzen dira: bingo jolasa hiztegia entzuten hasteko erabiliko da. Bikote-jolasak, berriz, umeei ikasi duten hiztegia erabiltzeko bidea eskainiko die. Hezitzaileak erabakiko du zein unetan erabili, horma-irudiaren ondoren bada, entzundako hiztegia praktikatzeko; gaiaren amaieran bada, hiztegia birpasatzeko edo

		6		10
	19		12	
15				
	2		8	

ikasi dutela ziurtatzeko. Gai gehienetan bingo eta bikote-jolasaz gain, badaude jolas gehiago ere, baina aipatutako bi horiek gai guztietan lantzen dira. Hezitzaileak umeen mailaren eta beharren arabera erabakiko du zein unetan erabili eta zein helbururekin.

5.2.4. Fitxak:

Hizkuntza ikasteko komeni da trebetasun guztiak lantzea.

Gai guztietan hainbat fitxa daude umeei, adinaren arabera, zerbait idazteko aukera izan dezaten, euren neurriko fitxak eginez. Dena dela, ume batzuek errazago beteko dituzte idazteko eta irakurtzeko duten mailaren arabera. Arazorik izanez gero, hezitzaileak arbelean idatz ditzake letrak eta umeei kopiatu. Bestalde, gelan letrak bistan izateak umeei euren irakurketa eta idazketa prozesuan lagunduko die.

Komeni da gaietan zehar egiten dituzten fitxa, marrazki eta eskulanak gelan gordetzea. Horrela, gaia bukatzean, ume bakoitzak bere lanak eramango ditu etxera.

5.2.5. Eskulanak:

Irudimena handitzen, gorputzaren abilezia bizkortzen, buruaren garapenean laguntzen du eskulanak egiteak.

Ludikotasuna ez da alde batera laga behar, eskulanak eginez ere asko ikas dezakete eta umeei. Gai bakoitzean, gaiarekin zerikusia duen eskulanen bat egingo da.



5.2.6. Azken xedea:

Gai osoan ikasitakoa modu ludikoan borobiltzeko erabiliko da.

Batzuetan bakarkako lana izan arren, gehienetan taldeko lana izango da. Umeei aukera izango dute gai osoan zehar landu eta ikasitako kontzeptu berriak erabiltzeko.

5.3. SASOIAN SASOIKO GAIAK

Hiru gai motz dira eta ez dute egitura bera jarraitzen:

- Urtaroak.
- Gabonak.
- Inauteriak.

Gai bakoitzak bere egitura izan arren, hirurek helburu bera dute: umeeek Euskal Herriko ohiturak eta ingurunea ezagutzea. Gai bakoitza dagokion sasoiari landuko da: abenduan, Olentzero eta Gabonetako ohiturak landuko dira; otsailean, berriz, Inauteriak; eta, urtaro bakoitzaren hasieran, udazkena, negua, udaberria eta uda.

6. GAIEN BANAN-BANAKO AZALPENA

6.0. SARRERA

Sarrera honetan umeeek Lorentxo ezagutuko dute. Ipuin baten bitartez, kontatuko du nola ikasiko duten euskara eta zer egingo duten urtean zehar euskara ikasteko.

Lorentxoren aurkezpena baliatuko dugu gaiaren helburu nagusia lortzeko: umeeek euren aurkezpena egiten ikastea. Horretarako, Lorentxok bi ume aurkeztuko ditu, bere lagunak: Beñat eta Irati. Beñatek eta Iratik euskaraz egiten dute berba eta euren hizkerari erreparatuz eta imitatuz ikasiko dute umeeek.

Bestalde, hasiera denez, umeeek, oraindik, euskara ez jakitea da normalena. Horregatik, komeni da gelan aurkituko duten materiala zein den jakitea eta euskaraz nola esaten den ikastea. Gelako hiztegia da, momentu honetan, hurbilena eta gehienetan beharko dutena.

Horretaz gain, gelako hormetan jartzeko kartel batzuk ere badaude. Kartel hauek agurrak ikasteko erabiliko ditugu eta komunera joan nahi dutenean, edo zerbait ulertzen ez dutenean, zer esan behar duten ikasteko.



Letrek ere garrantzia izango dute. Adin tarte honetan gerta daiteke batzuek irakurtzen jakitea eta beste batzuek ez. Hori dela eta, letra joko edo alfabetoak daude, dakitenek ez dakitenei irakats diezaiekete edo, tartetxoetan, letrekin jolas dezakete.

Hortaz, sarrera honen helburua:

Umeek ikasturtean zehar euskara ikasten lagunduko dien pertsonaia ezagutzea: **Lorentxo**.

Umeek euren buruaren aurkezpena egiten ikastea.



Gerta daitezkeen hutsuneei aurre egitea: horretarako prestatu dira gelako materiala, gelako kartelak eta letrak.

6.1. ZENBAKIAK ETA KOLOREAK

Helburu nagusia koloreak eta zenbakiak euskaraz adierazteko beharrezkoa den hiztegia jasotzea da. Nahiz eta batera landu, gaia bi ataletan banatuta dago: alde batetik, koloreak; eta bestetik, zenbakiak.

Gaia bi ataletan banatuta egon arren, horma-irudia bakarra da.


Gaiaren lanketa umeen mailaren arabera egingo da: zenbakiak eta koloreak gaika edo biak nahastuta.

Gutxieneko hitzak ikasitakoan, fitxetan, eskulanean eta azken xedean bi atalak elkarrekin lantzeko aukera dago: zenbakiak eta koloreak lotuko dira eta erabili egin beharko dituzte azken xedea egin ahal izateko.



6.3. NI ETA NIRE ARROPA

Umee, Beñat eta Iratirekin batera, gorputz–atalak eta arropak landuko dituzte.



Gaia bi ataletan banatuta dago: gorputz-atalak eta arropak.

Bi atalek azpiatal berak dituzte:

- Jolasak.
- Eskulanak.
- Fitxak.

Gai honek gai orokor guztiek jarraitzen duten egitura bera du:

Beti bezala, aurrezagutzak aktibatzen (horma-irudia) hasiko dira, bingo jolasarekin hiztegi berria entzun, hainbat eskulanekin eta jolasekin hiztegia lantzen jarraitu, eta, bukatzeko, ikasitakoa fitxetan idatziko dute. Horretaz gain, azken xedean, ikasitako guztia era ludikoan aplikatuko dute.

Hezitzaile bakoitzak erabaki beharko du, ikasleen mailaren arabera, hurrenkera hau egokia den, zenbat denbora eman ekintza bakoitzari edota arropak eta gorputz–atalak elkarrekin edo banatuta landuko dituen, baina ekintza guztiak egitea da egokia.

6.4. ETXEA ETA ALTZARIAK

Gai honetan, komeni da aurreko gaietako ordena aldatzea. Aurreko gaietan horma-irudiaren ostean sartu da bingoa. Gai honetan, ordea, hitz asko dituzte ikasteko, eta asimilatzeko, denbora beharko dute. Horregatik, fitxa batzuk eta beste ekintza batzuk egin ostean, gomendatzen da bingoa egitea .




Etxeko lau gela garrantzitsuenak landuko dira: egongela, sukalde, komuna eta logela (Beñatena). Fitxa guztiak lau irudi/ gela hauetan oinarrituko dira: margotu, gauzen izenak idatzi, irudiak osatu... ekintza multzo bakoitza lau geletan egingo da. **Fitxa hauek ez dira denak batera egitekoak. Fitxak beste eginkizun batzuekin tartekatzea komeni da, bestela, umeei astun gerta dakieke.**

Gaiaren lanketa egin ostean (aurrezagutzak landu, jolas eta fitxen bitartez hiztegi berria ikasi ...) umeei aukera izango dute Iratiren eta Beñaten etxea eraikitzeko. Eskulana egin ostean, beste umeei azaldu beharko diete zer egin duten, erabili dituzten koloreak, non jarri duten altzari bakoitza, pertsonaiak non kokatu dituzten...

6.5. ELIKAGAIAK

Umeei elikagaiak izendatzen ikasiko dute. Horretarako, horma-irudiarekin hasiko dira: elikagaien piramidea. Aurrezagutzetatik abiatuz eta beti ere, bingo eta bikote – jolasean oinarrituz, piramidearen arabeko sailkapeneko jakiak euskaraz izendatzen ikasiko dute. Hainbat fitxa eta eskulan egingo dituzte eta, azken xedean, jolas egiteko aukera izango dute: denda jolasa eta jatetxearen jolasa. Gai osoan zehar ikasitako hiztegia, eguneroko bizitzara eramango dute eta erosketetan eta sukaldean arituko dira.



6.6. ANIMALIAK



Umeeek hainbat animalia ezagutuko dituzte: itsasokoak, basokoak, oihanekoak eta baserrikoak. Azken xedean, Euskal Herriko baserri bat egin eta apaindu beharko dute. Horretarako, aurretik, jolasen eta fitxen bitartez, baserriko animaliak zeintzuk diren ikasiko dute.

Gai honetan amaierako bingoa dago. Gai guztian zehar landutako animalia guztiak islatuko dira bertan.

6.7. URTAROAK

Honako gaia ikasturte osoan zehar landuko da. Helburua urtaroak ezagutzea da, baita hilabeteak, asteko egunak eta eguraldiarekin lotutako kontzeptuak ere.

Hasieran lau urtaroak elkarrekin landuko dira (Horma-irudia, olerkitxoak, urtaroen familia jolasa eta marrazkiak). Gelan arbola izango dute urtaroen ezaugarrien arabera apaintzeko. Urtaro bakoitzaren hasieran, Lorentxoren gutuna jasoko dute eta urtaroko olerkia, puzzlea, marrazkia eta zuhaitza egingo dituzte.

Bestalde, egutegi bana banatuko zaie. Hilabeteak eta asteko egunak ikasteko baliatuko dugu. Hilabeteen esku jolasa eta alferraren astea ere landuko dira. Era berean, eguraldiarekin lotuko dugu eta ikasturte osoan zehar gelan kartel bat izango dugu eta, bertan, eguneroko eguraldia eta datak idatziko ditugu.

6.8. GABONAK

Helburua umeeek Euskal Herriko Gabonak eta pertsonaiak ezagutzea da. Horretarako, lehenik eta behin, Lorentxok, Olentzero nor den azalduko die umeei. Olentzeroren ipuin bat lantzeko aukera ere badago. Umeeek Olentzerori gutuna idatziko diote.

Bestalde, Iratik eta Beñatek euren Gabonen berri emango dute eta ikasleek euren herrietako Gabonetako ohiturak azaltzeko aukera izango dute.

Ikasgela Gabon kolorez jantziko dute eta gaiarekin lotura duten marrazkiak margotuko dituzte.

6.9. INAUTERIAK

Helburua umeei Euskal Herriko inauteriak ezagutzea eta hauekin gozatzea da. Horretarako, gela apaindu eta mozorroa prestatu beharko dute. Aukera dago, “Irati eta Beñat inauterietan” ipuina lantzeko.

Horretaz gain, Euskal Herriko inauterietako zenbait pertsonaia ezagutuko dituzte.

7. HEZITZAILEA

7.1. HEZITZAILEAREN FUNTZIOA

Ezin da ahaztu, hezitzailearen funtzioa oso garrantzitsua dela eta hezitzaileak umeei ikas dezaten baldintzak sortu beharko dituela; umeei protagonistak izaten lagatzea komeni da jarraibide batzuk zehaztuz, umeei ikas dezaten.

Hala ere, umeen interesak kontuan hartu behar baditu ere, hezitzailea da zer egin eta noiz erabakiko duena: umeei ezagutzen dituelako eta, beharren arabera, proposatuko dituelako ekintzak.

Hezitzaileak gidari lana bete beharko du: ikasteko baldintzak sortu, umeei motibatu eta seguru sentitzen lagundu. Umeei aurretik joan beharko da, umeei animatu, zailtasunetan lagunduz eta erronkak proposatuz.

7.2. HEZITZAILEAREN ZAKO AHOLKUAK

Kontuan izateko zenbait gomendio:

7.2.1. Erreferenteak sortu

Hasierako egunetan oso garrantzitsua izango da seguritate markoa sortzea. Umeei eroso senti daitezen, egokitu zaien taldean eta gelan

gustura sentitu beharko dira. Talde egitura sendotzea (konfiantza jolasak, aurkezpen jolasak... eginez) eta gela eurena sentitzea (denak elkarrekin gela apaindu, gela antolatu...) oso garrantzitsua izango da.

Bestalde, gomendagarria da hasieratik eguneroko zenbait errutina zehaztea:

- Agurrak.
- Eguraldia (A Gaia: Urtaroak. Lau urtaroak. Eguraldia).
- Kontaketak.
- Gelako arauak.

7.2.2. Lorentxo

Hezitzaileak oso kontuan izan beharko du Lorentxoren garrantzia. Materialari zentzua eta lotura ematen dion pertsonaia da eta umeak motibatzeko sortutakoa. Hezitzaileak Lorentxo, sarritan, aipatzea komeni da.

7.2.3. Ordena mantendu

Gaien hurrenkera mantentzea komeni da. Lorentxoren gutunak eta gai bakoitzak planteatzen dituen ekintzak, hurrenkera bat mantenduz sortu dira. Gaiak planteatzerakoan umeen hurbileko mundua hartu da kontuan. Familia, ingurua (eskola, etxea...), gorputza eta arropa, etxea, elikagaiak eta animaliak. Helburua oinarrizko hiztegia ikastea da, baina ordena jakin bati jarraituz.

Horregatik, gai orokorretan:

Hasi horma-irudia landuz (umeen aurrezagutzak detektatzeko), jarraitu bingo jolasarekin (umeek hiztegi berria entzuten hasteko), tartean landu fitxak, eskulanak eta dauden jolasak (umeak asper ez daitezen ez egin fitxa guztiak batera, bidea ez da beti eskulanak egitea), bikote-jolasa bukaera aldera landu umeek landutako hiztegia jaso duten edo ez egiaztatzeko. Bukatzeko, azken xedea egin gaien zehar landutakoa modu ludikoan borobiltzeko.

7.2.4. Ludikotasuna

Material honen xedea ez da bakarrik umeek euskara ikastea, euskararekin gozatzea ere bada helburu. Umeek ikusi behar dute euskaraz jolas egin

daitekeela, euskaraz abestu eta dantzatu daitekeela, euskaraz eskulanak egin daitezkeela... euskaraz goza daitekeela.

Horregatik, materiala modu ludikoan erabiltzea oso garrantzitsua da. Umeak ezin dira aspertu! Hezitzaile bakoitzak ezagutuko du bere taldea eta jakingo du materiala nola bideratu, baina, fitxekin aspertzen badira, hobe da ez egitea edo beste modu baten planteatzea.

7.2.5. Jolasak

Gai orokor guztiek bingo eta bikote-jolasak dauzkate, gehienek jolas gehiago badituzte ere.

Bingo jolasak eta bikote-jolasak garrantzi berezia dute eta umeek hiztegia ikasteko eta ikasi duten edo ez ebaluatzeko erabiliko dira.

Bingo jolasean, umeek hiztegi berria entzungo dute. Hasieran, irudia erakutsiko zaie hitza irudiarekin lotzeko. Gerora, irudirik ez zaie erakutsiko eta ikasten ari diren edo ez ikusiko da.

Bikote-jolasarekin, berriz, umeek hitzak esan egin beharko dituzte.

Komeni da jolasak gaiak iraun bitartean erabiltzea: hasieran bingo jolasa irudiak erakutsiz erabiltzea gomendatzen da; gaiaren erdialdera bingo jolasa irudiak erakutsi gabe; eta bukaeran, bikote-jolasean aritu umeek ikasi duten ikusteko.

Gaietan aurrera egin ahala, gaiak nahas daitezke: gorputz atalak eta familia elkartu, adibidez.

7.2.6. Abestiak, ipuinak

Material honetan ez dira ipuinak eta abestiak sortu. Hala ere, oso garrantzitsua da hauen lanketa, ulermenean eta sormenean lagungarriak direlako. Gai bakoitzeko ipuin bat kontatzea gomendatzen da, gaiarekin zerikusia izango duena, eta, ikasturtean zehar, kantuak abestea. (Ikus "Material osagarria").

7.2.7. Adina

Bost-zortzi urte arteko umeen artean ezberdintasunak daude. Euren garapenean aldeak daude eta batzuk irakurtzen eta idazten hasiberriak diren bitartean, beste batzuek prozesua gainditu dute.

Horregatik sartu dira letrak materialean, hezitzaileak duen taldearen arabera erabil ditzan. Adinaren arabera, batzuek errazago beteko dute fitxa. Idazteko eta irakurtzeko arazoak izanez gero, hezitzaileak arbelean idatz ditzake letrak eta umeek kopiatu edota gelan dauden letra jokoekin idatzi.

7.2.8. Euskara eta erdara

Hezitzaileak, ahal den neurrian, euskaraz hitz egin beharko du hasieratik. Ez bakarrik umeek hezitzailea euskararekin lotu dezaten, baita umeak hizkuntzara ohitzeko eta ulermena garatzeko ere. Garrantzitsua da umeek erdaraz esaten dutena euskaraz errepikatzea.

7.2.9. Hezitzailearen erabakia

Hezitzaileak ezagutuko du inork baino hobeto bere ume taldea eta berak erabakiko du materialean proposatzen diren ekintza guztiak egin edo ez, berriak sortu behar dituen, edo hemendik eta handik osatu behar duen.

Hala ere, ez da komeni fitxa guztiak jarraian egitea, edo beti eskulanetan aritzea.

7.2.10. Azken aholkua

Materiala, inprimatu ondoren, plastifikatzea da onena, izan ere, jokoak, tableroak eta abar behin baino gehiagotan erabiltzekoak dira. Plastifikatu ezean, apurtu edo hondatu egiten dira.

8. MATERIAL OSAGARRIA

Argitaratutako materialean agertzen diren ekintzez gain, komeni da umeekin jolas egitea, abestea eta irakurtzea. Hona hemen zenbait proposamen:

8.1. JOLASAK ETA ABESTIAK

Euskara ikasteko oso garrantzitsua da umeeek euskararekin berarekin gozatzea. Material honetan aurkeztu diren ekintzak alderdi ludikotik landu nahi izan dira. Hala ere, komeni da proposatutako gauzetatik aparte, jolasei eta abestiei lekua eskaintzea. Baliabide hori ez da materialean eskaini, baina hona hemen zenbait helbide interesgarri:

Jolasak:

—> http://aisia.net/jolasak/euskal_jolasak.php

Abestiak:

—> *Haur jolasen abestiak (I,II,III) Hik Hasi*

8.2. IPUINAK

Irakurmenak ulermena garatzen laguntzen du. Materialean, gai orokorretarako, ez da ipuinik sortu, hala ere, gai bakoitzeko ipuin bat lantzea proposatzen da.

Adibidez, animalien gaiarekin edo etxea eta altzariak gaiarekin batera “Hiru txerrikumeak” ipuina landu daiteke.

Bestalde, honako web-guneak ere gomendagarriak dira:

—> <http://www.pnte.cfnavarra.es/eibz/liburutegia/index.htm>

—> <http://katalogoa.org/>

—> www.ttartalo.com/ttartalo.cfm?katalogoa=1

8.3. FILMAK

Noizean behin filmak ikustea komeni da gero lanketa egiteko. Hona hemen zenbait film:

—> <http://katalogoa.org/filmak.htm>

—> “Zinema etxean” (I, II) Mantangorri/Berria

8.4. INTERNET BALIABIDEAK

Internetek aukera anitzak eskaintzen ditu. Ume talde bakoitzak behar bereziak izaten dituzenez, komeni da zenbaitetan material berria edota

euren beharrei egokitutako hainbat gauza sortzea. Hona hemen baliabide batzuk:

8.4.1. Irudiak

Material honen helburua oinarrizko hiztegia lantzea da. Gerta daiteke, materialean lantzen diren hitzez gain, beste batzuk landu nahi izatea. Hitz horiei irudia jartzeko jo helbide hauetara:

- <http://www.xarma.net/AISA2/>
- <http://leoloqueveo.org/>
- <http://www.pdictionary.com>
- <http://tell.fl.purdue.edu/JapanProj/FLClipart/>
- www.classroomclipart.com/

8.4.2. Eskulanak

Eskulanak egiten dituzten bitartean ere asko ikasten dute umeek eta gaiekin lotzeko zenbait eskulan helbide hauetan aurki daitezke:

- <http://www.miltalleres.com/>
- <http://www.dltk-kids.com/>

8.4.3. Marrazkiak

Taldeko umeak oso gazteak badira eta oraindik idazten ez badakite, beharbada, marrazki gahiagoren beharra izango da.

- <http://www.educima.com/es-colorear-imagenes-dibujos-foto-dibujos-c0.html>
- <http://www.dibujosparapintar.com/>
- <http://www.waece.org/colorear/weblaminas/index.htm>
- <http://www.freecoloring.org/>
- <http://www.dltk-kids.com/coloring>
- <http://www.dibujos-para-ninos.com/>



Lorentxo

EUSKARA IKASTEKO ETA JOLAS EGITEKO MATERIALA